



ETXEAN EUSKARA ERABILTZEARI BURUZKO HITZALDIAK

0-5 urte bitarteko umeen familiei zuzenduta.
Hizlaria: Paula Kasares, soziolinguista eta unibertsitate irakaslea.

«ZUEK DUZUE GILTZA»

Haurrak txikitatik hasten dira hizkuntza-ohiturak barneratzen. Nola eskaini euskara oparoa? Nola jokatu familia mistoetan? Euskaldun berriak euskaraz egin behar al luke, euskaraz aritzerakoan akatsak egiten baditu ere?

«EUSKARA. ENTRA UN IDIOMA EN CASA»

Euskara ez dakiten hainbat gurasoren kasuan, seme-alabak eskolan hasiera izan daiteke etxean euskara sartzeko lehen urratsa.

Irailaren 29tik urriaren 28ra, udalerriko ikastetxeetan.

Egutegi zehatza: www.basauri.net.

Izena ematea: Ikastetxeetan, Udaleko Euskara Atalean (Bidearte kalea, 8) edota euskara@basauri.net helbidean.

IPUIN ETA LIBURUEKIN LOTUTAKO JARDUERAK

2014KO URRITIK 2015EKO MAIATZERA
Saroa Bikandi ipuin kontalaria.

«LIBURUEN POLTSA», FAMILIARENTZAKO IRAKURKETA KLUBA

3-8 urte bitarteko umei eta haien familiei zuzenduta.

Umeengan istorioak eta ipuinak ezagutzeko gogoia pizteko. Familia osoak ondo pasatzeko.

Urritik maiatzera hilero, ordubeteko saioak:
17:30-18:30. Ibaiganeke eta San Migeleko liburutegietan.

«AZALERAKO IPUINAK»

0-3 urte bitarteko umei eta haien familiei zuzenduta.

Masaje saioak, komunikaziorako baliabideekin lagunduta: ipuinak, poemak, kantuak, jolasak erabiliko dituzte.

Urritik maiatzera hilero, 45 minutuko saioak:
17:30-18:15. Basozelai Gizarte Etxeko Txiki Txokoan.

Egutegi zehatza eta argibide gehiago:
www.basauri.net.

Izena ematea: kultur etxe eta gizarte etxeetako liburutegietan.

JOLASEKIN LOTUTAKO EKINTZAK IKASTURTE OSOAN ZEHAR

«OLGETAN ONDO PASAU»

«OLGETAN ONDO PASAU» programa zabaldu eta eskaintza berria dago: «FAMILIARTEAN JOLASEAN». Gurasoek eta seme-alabek aukera izango dute elkarrekin euskaraz jolasteko, ikuskizun txikiak ikusteko eta larunbatetan familia guztiarentzako beste jarduera batzuk egiteko (tailerrak, bidaiak, eta abar).

Egutegi zehatza eta argibide gehiago:
www.basauri.net, eta kultur etxe eta gizarte etxeetako ludoteketan.

Gainera:

➤ Social Antzokian urtean zehar **euskarazko ikuskizunak** eskaintzen dituzte eta Kultur Etxe eta Gizarte Etxeetan **tailerrak, solasaldiak, ipuin kontaketak, eta abar** euskaraz ere antolatzen dira. Bilatu ikurra.

➤ Kultur etxeetan ere **umeentzako liburutegiak** ditugula, eta bertan euskaraz hazteko eta hezteko materiala duzuela eskuragarri, adin guztietako umeentzat: ipuinak, filmak, cd-rom-ak, musika, eta abar.

➤ Kultur etxe guztietan **ludotekak** ditugula martxan 4 urtetik gorako umeentzat, euskaraz jolasteko eta jolasten ikasteko, eta Gabonetan ludoteka berezia egongo dela.

➤ Basauri Kirolak umeentzako **kirol ikastaroak** eskaintzen dituztela. Bilatu ikurra.

➤ Euskara ikasteko gurasoentzako **euskara ikastaro bereziak** antolatzen direla, bai Udal Euskaltegian, bai AEKko Bolintxu Euskaltegian.

➤ Udalak **diru-laguntza bereziak** (matrikularen %75era artekoak) eskaintzen dizkiela euskara ikasten duten 0-12 urte bitarteko umeen gurasoei, eskoletara joateko baldintzak betez gero.

➤ AEKko Bolintxu Euskaltegiak **Gurasolagun** programa eskaintzen diela familiei, euskara praktikatzeko. Udalak diruz lagundutako ekintza da hau.

Argibide gehiago behar izanez gero:

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA
Bidearte kalea, 8
94 466 63 12 / euskara@basauri.net

NORA PEREDA

Kultura Politika eta Euskara Arloko zinegotzia